

2004KO ABENDUAREN 23AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita hirua

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta lau

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzietan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea

Arantxa Aseginolaza Azkargorta

Imanol Aranburu Gutierrez

Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2004ko urriaren 28ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- BURDINOLAKO PROIEKTUA.

Maria Jose Torrecillaren aholkuarekin, Alberto Zulueta arkitektoak egindako "Igartza burdinolako ormak kontsolidatzeari eta estaltzeari buruzko egikaritze proiektua" aurkeztu da. Bildutakoek planoen kopiak jasotzen dituzte eta koordinatzaileak oinarrizko ezaugarriak azaltzen ditu. Aldi berean jakinarazten da 2004ko azaroaren 8an Igartza Batzorde Teknikoan egindakko bileran nahiz 2004ko abenduaren 14an Hirigintza Batzordeak egindakko bileran, proiektua onartu egin zela.

Proiektu honen kostu ekonomikoa, 251.086,56, BEZ barne, €koa da eta gehiena Beasaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak sinatutako hitzarmenaren arabera estaliko da.

Aho batez onartu da "Igartzako burdinola estaltzeko eta hormak kontsolidatzeko proiektua"

3.- OBRAK KONTRATATZEA. Igartzako burdinola estaltzeko eta hormak kontsolidatzeko obrak kontratatzeko baldintza plegua onartzea.

Igartzako Batzorde bereziak proposatuta, lehiaketa bidez, obrak kontratatzeko deialdi publikoa egitea eta horretarako prestatutako baldintza plegua onartzea erabaki da. Kontratazioa premiazko prozedura bitartez egingo da. Horren ondorioz, eskaintzak aurkezteko epea, 13 egunekoa izango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Premiazko prozedura aitortzea erabaki da arrazoi hauengatik:

“2002. urtean, Beasaingo Udalak, Igartzako burdinola zegoen orubean indusketa arkeologikoa burutu zuen.

Indusketa, Foru Arauaren babesarekin, “Sociedad de Ciencias Aranzadi”k egin zuen eta 1782. urtean Francisco de Iberok diseinatutako burdinolaren eraikuntza-hondarrak agerian geratu ziren.

Azpinarratzekoa da burdinolako tailerraren, ikaztegien eta aldaparoaren neurri eta kontserbazio kalitatea. Hala ere, mende bat baino gehiago zorupean egon ondoren eta beraien gain eraiki ziren Indarreko pabiloien bultzada eta pisua jasan ondoren, burdinolaren hondarren narriadura saihesteko premiazko interbentzioa burutu behar da.

Momentu hauetan, eraikuntza-hondarrak eguraldiaren eta agente-higatzailearen menpe daude eta harri-hormaren osagai den kare eta areazko morteroa desegiten dute. Horregatik beharrezkoa da lehenbailehen elementu horiek babesteko estalpea eraikitzea. Era berean, eraikuntza-hondarrak, tailerreko antzinako makinariaren hainbat pieza estropeatzen ari dira, kanpoan egoteagatik eta hotz-beroak jasateagatik.

Ikaztegi eta tailerraren arteko bitartekariko horma goian inklinatuta dago eta beharrezkoa da zurkaiztea lehenbailehen erori baino lehen.

Egoera larri honen aurrean, udal teknikoek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko teknikoek, Eusko Jaurlaritzakoak eta “Sociedad de Ciencias Aranzadi”ko ordezkariak osatzen duten Igartzako Batzorde Teknikoak 2004ko azaroaren 8an egindako bileran erabaki zuten obra hau egikaritzea, Igartzako eraikuntza-hondarrak lehenbailehen kontsolidatzeko eta horrela erauzkea saihesteko.”

Obra horien egikaritze-epea gehienera ere, sei hilabetekoa izango da.

Lizitatzeko ondorengo klasifikazioa eskatuko da: K taldea, 7 azpitaldea, c kategoria edo kasua bada, C taldea, 2, 4, 5 eta 8 azpitaldea eta c kategoria.

Adjudikazioa irizpideak ondorengoak izango dira:

1. Prezioa.....	de 0 a 35 p.
2. Obraren azterketa. Lanen egitaraua.	de 0 a 10 p.
3. Epeak (partzialak eta totala).....	de 0 a 15 p.
4.Obrari atxekitutako pertsonala eta asistentzia teknikoa.....	de 0 a 5 p.
5.Makinaria eta obrari atxekitutako baliabideak.....	de 0 a 5 p.
6. Antzeko obretan azkeneko urteetako eskarmentua	de 0 a 30 p.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ez da inolakorik azaldu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak hogeita bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.